

Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistika, 2017

Emaitzen laburpena, 2017

2019ko urria



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



Aurkibidea

1. Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak.....	3
2. Asimetriak	5
3. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria.....	6
4. Euskarazko kultura	7
5. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna	10
6. Nazioartekotzea.....	12
7. Emakumeen presentzia enpleguan	14




1. Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak

- **673 agenteri buruzko informazioa biltzen da:** 129 programatzaile eta arte eszenikoen 92 ekoizle; 97 liburu-denda eta 36 argitaletxe; 116 musika-programatzaile eta diskoaren industriako 23 agente; 36 erakustareto eta 19 arte-galeria; eta ikus-entzunezkoen sektoreko 71 agente ekoizle eta 54 zinema-areto.
- **Diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da,** 8,5 milioi euroko emaitzarekin (guztizkoaren % 2,1).
- 2.936 langilek **dute enplegua:** ikus-entzunezkoen sektoreak hartzen du proportziorik handiena (% 48,2), atzetik musika (% 14,9) eta liburuaren industria (% 14,4) dituelarik.
- **Titulartasun pribatuko agenteak nagusitzen dira, nahiz eta agente horien garrantzia 2015ean baino txikiagoa den.** Agenteen % 50,8 badira ere, 2015ean % 57,7 ziren. 2015ean hauteman zenez, titulartasun pribatuko agenteak nagusitzen diren arren, agente publiko eta pribatuen diru-sarreraren bolumena parekatu egin da (190 milioi euro inguru 2017an; % 47,6 agente pribatuen kasuan, % 47,1 agente publikoen kasuan). Enpleguari dagokionez, langileen % 51,3 biltzen dute agente pribatuek.
- **Kultura-sarea Bizkaian biltzen da eta Gipuzkoak kultura-dentsitatearen zifra handienei eusten die biztanle bakoitzeko.** Lurralde Historikoaren arabera begiratzen bada, ikus daiteke Bizkaian agenteen % 45,9 biltzen dela eta Gipuzkoan % 41,9. Pisu ekonomikoa Bizkaian biltzen da (diru-sarrera guztien % 70,9) eta enpleguaren pisua (% 63,1).



1. irudia. Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen portzentajezko banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2017.



Kultura-sarearen 100.000 biztanleko ratioa handiagoa da Gipuzkoan (52,2), bederatzi puntu Bizkaiaren gaineratik (37,1) eta hamaika Arabaren gaineratik (42,3). Gipuzkoak dituen programatzaileen eta ekoizleen ratioak (27,7 eta 15,9, hurrenez hurren) handienak dira. Bizkaiak saltoki gehiago ditu 100.000 biztanleko, Gipuzkoaren aurretik eta, bereziki, Arabaren aurretik (8,8, 8,5 eta 7,2, hurrenez hurren).

2. irudia. Agente programatzaileen eta erakustegiaren, saltokien eta ekoizleen 100.000 biztanleko banaketa eta ratioa, Lurralde Historikoaren arabera. Datu absolutuak eta ratioa/100.000 biztanle. 2017.


Agente-tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaileak eta erakustegiak	22,7	44	27,7	150	16,9	141	21,4	335
Saltokiak	7,2	14	8,5	46	8,8	73	8,5	133
Ekoizleak	12,4	24	15,9	86	11,4	95	13,1	205
Guztira	42,3	82	52,2	282	37,1	309	42,9	673



2. Asimetriak

- **Diru-sarreraren eta enpleguaren metaketa-maila handia agente kopuru txiki batean.** Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k sektore bakoitzaren guztizko diru-sarreraren hamar eurotik 7-9 euro metatzen dituzte (liburu-dendetan eta kontzertu-aretoetan izan ezik, horiek hamarretik 6 metatzen baitituzte). Asimetria-maila desberdina da eta dagokion jardueraren eta negozioaren ezaugarrien mende dago, baina, dena dela, diru-sarreraren eta, neurri txikiagoan, enpleguaren metaketa gertatzea eredu komuna da.

3. irudia. Agente nagusiak (sektore bakoitzeko diru-sarrera handienak dituztenen % 20), diru-sarreraren metaketa-mailaren, jarduera-bolumenaren* eta enpleguaren arabera. Ehunekoa. 2017.




* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = funtzioak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak = ekoizpenak; ikusmen-arteak = erakusketak).



3. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

- **Zuzeneko kulturako agenteak dira nagusi, baina kultura erreproduzigarriak diru-sarreretan eta enpleguan duen pisua handiagoa da.** Kultura erreproduzigarriaren diru-sarrerak 252,2 milioi eurora iristen dira, eta zuzeneko kulturarenak, aldiz, 155,53 milioi eurora. Kultura erreproduzigarriari lotutako enpleguak 1.859,3 dira guztira, eta zuzeneko kulturari lotutakoak, aldiz, 1.076,8.

4. irudia. Arteetako eta industrietako agenteen, diru-sarreraren eta langileen banaketa, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren arabera. Ehunekoak. 2017.




Datuak EITBren eragina kontuan hartu gabe aztertzen badira, inpaktua handiagoa da: zuzeneko kulturak guztizko enpleguaren % 46,2ko pisua du eta diru-sarreraren % 52,8.



4. Euskarazko kultura

- **Euskarak presentzia nabarmena du antzerki-, disko- eta argitalpen-arloko ekoizpenean.** Termino globaletan, euskara nagusi da disko-ekoizpenean (% 73,5), ekoizpen eszenikoan (% 53,7) eta argitalpen-ekoizpenean (% 51,6). Ikus-entzunezkoen ekoizpenean (% 19,9) eta programazio eszenikoan (% 37,7) maila txikiagoak lortzen ditu.

5. irudia. Euskararen pisua agente-tipologiaren arabera¹. Ehunekoak. 2017.




- **Euskara arte eszenikoetan.** Euskararen pisua handiagoa da ekoizpenean programazioan baino EAEko hiru lurraldeetan. Gipuzkoa da euskararen presentzia handiena duen lurraldea ekoizpenean nahiz programazioan. Lurralde horretan ekoizten diren ikuskizun guztien artetik, % 71,1 euskaraz egiten dira, eta programatutako emanaldi guztien artetik, % 56,3.

¹ Arte eszenikoetako ekoizleak: euskaraz zein euskaraz eta gaztelaniaz ekoiztutako antzerki-ikuskizunak // Arte eszenikoetako programatzaileak: euskaraz programatutako antzerki-ikuskizunak, areto eta jaialdien arabera // Argitaletxeak: argitaratutako aleak (berritasunak) eta berrargitaratutakoak (funtsa) // Ikus-entzunezkoak: euskaraz zein euskaraz eta gaztelaniaz egindako ekoizpenak




6. irudia. Euskararen presentzia arte eszenikoen ekoizpenean eta programazioan, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2017.



- **Euskara ikus-entzunezkoetan.** Ikus-entzunezko ekoizpenen % 19,9 euskaraz egiten dira. EITB kontuan izanez gero, ekoizpenaren % 29,8ra igotzen da pisua. Emanaldiak eta dokumentalak nabarmentzen dira: emanaldien % 83,8 eta dokumentalen % 49,2 euskaraz egiten dira.

Zinema-aretoetan ia ez da nabaritzen euskararen pisua. Zinema-aretoek egindako emanaldi guztien artetik, % 85,8 gaztelaniaz egiten dira; % 3,0, aldiz, euskaraz. Euskaraz egindako 3.907 emanaldi horietatik, erdiak baino gehiago Bizkaian egiten dira.


7. irudia. Euskaraz erreproduzitutako emanaldiak Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2017.





- **Euskara argitalpen-ekoizpenean.** Euskarazko argitalpen-ekoizpenak % 51,6ko pisua du² guztizkoarekiko 2017an: nagusi da milioi 1 eurotik gorako diru-sarreretakoa aurrekontua duten argitaletxeetan (% 54,5eko pisua).

8. irudia. Euskararen pisu erlatiboa argitalpen-ekoizpenean, argitaletxearen profilaren arabera. Ehunekoak. 2017.



Generoen arabera, unibertsitatekoak ez diren testu-liburuak, haurrentzako eta gazteentzako testu-liburuak eta literatura ez dira euskarazko ale kopuru handiena biltzen dutenak (% 77,2, % 71,9, % 66,3 eta % 67,4, hurrenez hurren).

² Muturreko baliorik gabe



5. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna

- **Ekarpen publikoekiko mendekotasun-maila txikia**, beren diru-sarreraren % 4,2 soilik datorkie dirulaguntzetatik. Mendekotasunaren pisua arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoen ekoizletan beste edozein ekoizpen-sektoretan baino handiagoa da (% 9,7 eta % 8,2, hurrenez hurren).

9. irudia. Agente pribatuen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera (1). Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017.

Sektorea	Agente-tipologia	2017		
		Agente pribatuak	Guztizko diru-sarrerak	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako euro	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	69	15.989,2	9,7
	Programatzailea	2	-	-
Liburua	Argitaletxea	34	27.234,1	3,0
	Liburu-denda	81	31.122,5	0,0
Musika	Sustatzaile pribatua	11	47.079,7	3,5
	Kontzertu-aretoa	17	3.016,7	3,9
	Diskoetxea	6	2.066,1	8,3
	Disko-saltokiak	17	2.799,0	2,6
Ikusmen-arteak	Arte-galeria	19	4.738,0	0,8
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	69	42.727,7	8,2
	Zinema-aretoak	17	18.605,6	0,8
Guztira		342	195.579,3	4,2

(1) Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.

- **Programazio eszenikoa eta ikusmen-arten erakusketa gehienbat publikoak dira.** Programatzaile publikoak dira nagusi areto eta jaialdien eskaintza eszenikoan (% 79,8). Ikusmen-arten alorrean, hamar



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



erakusketatik sei erakusketagune publikoetan izan dira (% 67,7). Zuzeneko musika-eskaintzan, kontzertuen % 47,6 ekimen publikokoak dira.



6. Nazioartekotzea

- **Kanpoko artisten presentziarekiko kultura-eskaintzaren iragazkortasun txikia areagotu da.** EAeko artista eta sortzaileak nagusi dira kultura-ekoizpenean eta kultura-programazioan: programatutako kontzertuen % 54,7arekin, antzezpen eszenikoen % 63,0arekin, eta ikusmen-arteen erakusketen % 76,0arekin eta kopia diskografikoaren % 87,0arekin atal bakoitzean.


10. irudia. Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2017.






- **Arte eszenikoetako konpainien hamar emanalditatik lau EAetik kanpo egiten dira:** emanaldien % 7,8 atzerrian egiten dira eta % 30,6 Estatuko gainerako lekuetan. Antzerki-konpainiek presentzia handiagoa dute kanpoan (emanaldien % 19,0 atzerrian eta % 35,7 estatuko gainerako lekuetan).

11. irudia. Dantza ekoizten duten konpainiek gauzatutako emanaldiak, emanaldiaren tokiaren arabera. Ehunekoak. 2017.



- **Kontzertuen sustatzaileen helmuga nagusia Estatua da.** EAEn kokatutako kontzertuen sustatzaile pribatuek Estatuko merkatua dute jomuga bereziki (kontzertuen % 34,9), baina atzerriko merkatua protagonismoa hartzen ari da (kontzertuen % 7,1).

12. irudia. Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programatutako lekuaren arabera. Ehunekoak. 2017.






7. Emakumeen presentzia enpleguan

- **Emakumeek kultura-sektoreetako enplegu osoan duten pisua orekatik hurbil dago (% 48-56, ikus-entzunezkoen sektorean izan ezik).** Emakumeen presentzia handiena duten sektoreak liburua eta ikusmen-arteak dira; presentzia txikiagoa dute musikan eta ikus-entzunezkoetan.

13. irudia. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoa. 2017.



- **Kudeaketara eta administraziora bideratutako postuak dira emakumeek gehien betetzen dituztenak sektore desberdinetan.** Kudeaketara eta administraziora bideratutako postuetan dira nagusi (% 67,3), baina postu gutxi dira proportzionalki (guztizko enpleguen % 12,7). Teknikari- eta zuzendari-profilek emakumeen ehuneko txikiagoari ematen diete lana (% 42,5 eta % 33,9). Kontuan hartu behar da teknikari-profilek enpleguen kopuru handiagoa biltzen dutela (% 53,0).



14. irudia. Urteko lanaldi osoko emakumezko langile baliokide guztien banaketa, sektoreen eta lanbide-kategoriaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017.

